

Raque Ogandori esker

Joxean AGIRRE

Aurreikuspenak betetzekotan, aste honen hondarrean joango da Errejon epaitegira deklaratzera. Munduan ez da egongo auzi horretaz nik baino gutxiago dakienik, baina egokitu zait, prentsa begiratzen ari nintzela eta batez ere familiako solasaldietan, zerbait entzutea, eta arazoa kaleratu zuen Cristina Fallaras sumatu dut bazter guztietan ia ahots bakarreko korua zuzentzen. Egunkari honetan bertan elkarrizketa egin zitzaion, bere salaketen liburua zela-eta.

Istorio luze eta nahasi honetan izan dudana aurkikuntza atsegin bakanetakoa Raque Ogando feminista galiziarren diskurtsoa ezagutzea izan da. Etxekoen aholkuari esker Twitterren hiruzpalau elkarrizketa aurkitu nizekion, horietatik luzeena Carlos Fernandez Liriak “Filosofía en canal” saioan

egindakoa. Egia da ordurako “El País”-eko Tribuna atalean Ogandok “Linchamiento” izeneko artikulua argitaratua zuela, Santiago Alba Rico eta Itziar Zigarekin batean, Errejonen auziaren harira, eta Catalonia Radiok ere buruz buruko bat antolatua zuela Ogando eta Fallararen artean.

Kontua da Ogandok egiten duen feminismoaren gaurko egoerari buruzko diagnostikoa argigarria egin zaidala eta Podemosek feminismoaz egiten duen erabileraz ere oso kontu jakingarriak esaten dituela. Eta gauza guztien gainera, niri galdera batzuk egiteko balio izan dit: zer albo kalte ekar diezazkioke salaketa anonimoa eta masiboen kanpainak feminismoari? Badakigu biktimak oso zaila duela abusu eta indarkeriaren frogak biltzea, batez ere salaketak aspaldikoak direnean, baina

zer gertatzen da hamar salatutatik be-deratzi errudunak izanik ere, gelditzen dena errugabea bada? Ez al du feminismoak indarkeria matxistaren aurka le-erro gorririk? Salaketa foroak interesga-riak izan daitezke beharbada enpresa handietan edo erakundeetan barne era-bilera bat egiteko, ondorioz arazoak ikertzeko baliatzen badira. Salaketa ho-riek ikertu gabe egiten badira, erruga-betasun presuntzioa albo batera uzten bada, justizia paralelo bat bultzatzen ari gara. Horiek eta beste hainbat galdera egiteko balio izan dit Ogando entzu-teak. Harrigarria egin zait ikustea zer-gatik diskurtso batzuei halako kantxa ematen zaien komunikabideetan, beste batzuk bazterrean gelditzen diren bitar-tean, nahiz eta bigarren hauek argudio eta egituraketa aldetik pisu handiago-koa izan. •

Pantailaren argiaren itsuan

Maddi AIESTARAN

Logelako atea itxi, txapinak eran-tzi, argia itzali eta ohera sartuta-koan, eroso deritzogun pos-turan kokatzen dugu gorputza, telefonoaren kargagailuak permititzen digun ertzean finkatzen ditugu ukondo-buruak, gora eta behera eragiten diegu hatz erakusleei, erpuruei. Begiak igurz-ten ditugu libratutako eskuarekin, tarte-ka. Eta pantailaren argiaren itsuan segi-tzen dugu pixka batean.

Aditu askori entzun izan diogun esa-na da ez duela mesederik egiten ohera-tu aurreko minutuak (orduak) mugiko-rraren pantailari beha igarotzeak. Ordea, egun osoko nekea gainean dugu-

la oheratu eta lasai jarritakoan, ondo etortzen da norberarentzako tarte bat; deskantsatzeko, dibertitzeko, informa-tzeko, barre egiteko, ez pentsatzeko, des-konektatzeko. Edo hori sinetsi eta gus-tura xamar egoteko. Gero, loak gain hartzen digunean, gau-mahaian uzten dugu telefonoa, gertu, hurrengo goi-zean ezertan hasi baino lehen eskura izan dezagun.

Ez naiz ni urte berriari ekin eta asmo berrien zerrendak egiten dituen horie-takoa. Baina asmo berri bat ezar daite-keen aukera oro aprobetxatzen dut neure buruari esateko loari merezi duen garrantzia ematen hasi behar nai-

zela; urte berria, urtebetetze eguna, iraila, pertseiden gaua, opor osteko itzulera... Beti-beti erabakitzen dut, egun horretatik aurrera, behintzat ohe-ratu aurreko ordubetea, ez dudala pantailarik erabiliko. Eta iratzarri oste-ko ordubetea, berdin. Aditu askori en-tzun izan badiogu, hala izango da, eta mesede egingo dit oheratu aurreko mi-nutuetan beste modu batzuetan des-kantsatzeak, dibertitzeak, informa-tzeak, barre egiteak, ez pentsatzeak, deskonektatzeak.

Kontua da, gaur-gaurkoz, ez naizela gai hori sinetsi eta ordubete huts horre-tan gustura xamar egoteko. •